

# BERRIGARA

1. zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, martxoak 11

*Erreportaia:*

**Maltzaga-Urbina:**

**proiketuk**

**eztabaidan**

## **Dani Santosen argazkia**

**Emakumeari buruzko argazki lehiaketako onena**



**Burberrys**  
OF LONDON

# egizabal



CARTUJANO

Dr MARTENS

LEVI'S 501 XX USA

PEYTON

PANAMA JACK

## Amets

ESTETIKA ZENTRUA eta MEDIKU GABINETEA (Masterreka, 19 beh

**Nerea Iñan eta Mari Jose Alonso ermuarrak, Estetikan graduatuak dira. Duarngo eta Eibarren hiru urtez estetika etxeetan lanean jardun ondoren, Bergaran zabaldu berri dute estetika zentrua. Masterreka kaleko Amets estetika zentruan punta-puntako tresneria eta materiala aurkitu dezakezu.**



### NEREA IÑAN eta MARI JOSE ALONSO:

*"Estetika munduan eskaini daitekeen guztia aurkitu daiteke Amets-ek"*

- Zer eskaintzen du Amets estetika zentruak?
- Gaur egun estetika munduan aurkitu dezakegun guztia, hala nola, aurpegi eta gorputzarentzako tratamendu eta garbiketak, zimurren kontrako tratamenduak, lifting-a, laserra..., hitz batean esateko, edozein motatako tratamenduetarako erabili ditzakegun tresneriari dagokionez azken nobedadeak aurkitu ditzake gure bezeroak.
- Amets estetika zentruko

egoitzan gela desberdinak dituzue...

- Bai, gela bakoitzean tratamendu desberdinak egiten ditugu. Depilaziorako gelan, esate baterako, era guztietako depilazioak egiten ditugu, depilazio hotzak, beroak eta elektrikoak. Azken hau, elektrolisis eta termolisisaren arteko konbinazioa da. Minik gabeko tratamendua da eta lortzen dituen emaitzak benetan ikusgarriak dira, ez du batere markarik lagatzen. Beste gela

batean, laserra daukagu. Laserra gorputzaren tratamendurako, bularrak haunditzeko, estriak ebitatzeko, lifting-a egiteko edota zimurrak kentzeko erabiltzen da. Solariuma ere badaukagu eta honen ondoan dutxa bat. Bestalde, masajeak hartzeko gela bat ere badaukagu, kiromasajea, zelulitisaren kontrako, erlajaziorakoa, hidroje enfatikoa...

- Horrez gain mediku gabinetea ere badaukazue?
- Bai, mediku talde bat

daukagu, estetika zirujanoak dira. Hemen kontsulta pasatzen dute estetika medikuntzarekin zerikusia duen guztia aztertzen dute: barize zirujia, gizentasunaren tratamendua... Bestalde zirujia estetikoa egin nahi duenak, Donostiako Elia klinikian, Bilboko Indauro edota Gasteizen egin dezake, berak aukeratu du non egin. Bezeroak etxean hartu eta klinikara eramaten dugu eta ondoren berriz ere bezeroak etxean lagatzen dugu.

**MERKATUKO PREZIORIK ONENAK ETA KALITATERIK HOBERENA**

**ZABALIK EGUN OSOAN (9.00-22.00). EGUERDITAN ERE ZABALIK**

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.  
 Tlmoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte  
 Masterreka, 13. 20.570 Bergara.  
 ☎ 76 03 19

**Zuzendaria:**

Gorka Elorza.

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkorobereziabar.

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereziabar, Juan Martin Elaxpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Maria Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Etxebarria, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Miren Goenaga.

**Argazki laborategia:**

Pol Argazki Taldea.

**Portadako argazkia:**

Dani Santos.

**Komikia eta marrazkiak:**

Enrik Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.

**Banaketa:**

Trantxangorri Taldea.

**Tirada:**

3.500 ale.

**Primategia:**

Gatu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Copyright:**

BERRIGARA

**Lege gordailua:**

SS 50/ 91

**ISSN:**

1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen adierazirik esanen eta iritzien erantzunik.

## Z E R B E R R I D A ?

### YOSUNE LINAZISORO Kirol Zerbitzuko Zuzendaria

- Zenbatero egiten da orain egin den barruko pizinen garbiketa orokorra?

- Irailean zabaltzen ditugunetik bi aldiz garbitzera behartzen gaitu Araudi Sanitarioak. Lehen garbiketa zabaldu aurretik egin genuenez, neguko denboraldian zehar egin beharrekoa falta zen eta asteartean amaitu genuen.

- Eta noizko barruko pizinen berrikuntza?

- Txikiak eta zaharrek gelditu dira, bai, 1971.ekoak baitira. Diputazioan badute gure eskakizunen berri eta beren erabakiaren zai gaude momentuan. Gustatuko litzaiguke barruko pizinen haun-



ditu eta Agorrosin inguruan kirol konpleju bat egitea. Proiektu oso anbizioasoa da, egia esan, kanpoko pizinen neguan estaltzeko aukera ere aztertu baitugu. Baina oraindik ere ez dago ezer zehaztuta eta, honelakoetan bezala, jaso ditzakegun dirulaguntzen menpe gaude. Denbora aldetik ere ez dago fetxarrik.

**"Barruko pizinen berrikuntza Diputazioaren menpe gaude"**

## I T U R R I O N E T I K

### Anbulatorioa haunditzeko lehen urratsak eman dira

Osakidetzak Bergarako Anbulatorioa haunditzeko lanen proiektua egin eta datorren urteari begira egin beharreko inbertsio proposamena egin nahi du aurten. Orain arte hitzez nahi hori azaldu badu ere, oraingoa idatzi bat bidali du Juan Bautista Cortina Arabako Area Sanitarioaren Zuzendari Jerenteak, interes hori konfirmatuz. Proiektuak aurrera egin ezker, agian datorren urtean bertan hasiko lirateke ambulatotioko lehen pisuan traumatologia, dermatologia, oftalmologia edota X izpien zerbitzuak jartzeko lanak.

## ESAN DUTE

"Apirilean zabalduko da Epele eta Kanpazar arteko errepide berria"

**ROMAN SUDUPE**  
 Garraio eta Bide Azpiegitura Diputatuta  
 DEIA

"Jatorrizko izendapenaren erregelamendua kalitate altua baino, elikagaia nondik datorren, zein eskualdetakoa den azaltzen du gehien bat.

Labelaren erregelamenduan horiek kontutan hartzen dira baina horretaz gain kalitatezko maila bat eskatzen da. Maila hori, bataz beste, erdia baino altuagoa izan behar da"

**GERMAN MURUAMENDIARAZ**  
 Eusko Jaurlaritzako Elikadura Politikarako Zuzendaria  
 ARIZ ONDO

"Gaztetxekoek badakite ondo Fidel Izagirre, San Pedroko Parrokoa, Gaztetxearen eta Udalaren arteko bitartekaritza lanak egiteko prest dagoela"


**XABIER ZUBIZARRETA**  
 Bergarako Artziprestalgo burua  
 LOIOLA IRRATIA



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



**DEMOLITION MAN**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



**AZUL**

Osteguna: 19.30

**AllNighters**

**AllNighters**



**ZIRIPOT**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

**Zinea**

▼▼ **Sylvester Stalloneren** giharren luzimendurako eginiko azken filma. 2032 urtean kokatuta, polizia arriskutsuena (**Stallone** bera) eta gupidariak ez duen gaizkile beldurgarri baten (**Wesley Snipes**) arteko borroka azaltzen zaigu. 1 fijoia gure kinielan.

▼▼ Azken orduko aldaketarik ez badago, **Krzysztof Kieslowskiren** (*Decálogo*) trilojiaren lehen zatia. Kritika ezin hobeak eta hainbat sari lortu ditu, Cannesen tartean. Alargun geratzen den emakume batek (**Jüliette Binoche**) aurrera egin beharko du...

▼ Kalboetxeaga anaiak Pizinetako tabernan berriz ere **rock kontzertuak** antolatzeari ekingo diote. Aurrerantzean larunbat gauetan antolatuko dituzte eta zapatu honetarako **AllNighters** rockero gazteiztarrak iragarri dituzte. Kontzertua gaueko 10.30etan hasiko da. Sarrerak 300 pzta. balioko du.

**Deiak**

▼ **Emakume taldeen** eskulak Kultur Etxean igandera arte.

▼ **Luis I. Glez.en** diapositibagaur eta hilaren 18an Angiozarkako Saloian 7etan.


▼ **Iskanbila** musika taldea gauean Pol-Polen.

▼ **Berto jaialdia** gaur 22.30etan Elgetan. Besteak beste, Arozena, Telletxea, Ibarra, Zebario eta Ainhoa Agirreazaldegi bergararra. Gai-jartzaile: Maite Aristegi.

▼ **Bergarako EAJk** Juan Mari Olloraren "*Gaur egungo egoera politikoa*" hitzaldia iragarri du martxoak 18rako, Batzokian 8etan. Oso doren afaria izango da (izen-ematea Batzokian).

**Ogia**

▼ **Igandea 13:** Bolintxo.



**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 12:** Camacho.
- ▼ **Igandea 13:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 14:** Puy.
- ▼ **Asteartea 15:** Guallar.
- ▼ **Asteazkena 16:** Estella/Morales.
- ▼ **Osteguna 17:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Ostirala 18:** Camacho/Corcuera.

**Igandera arte** ikusgai egongo dira Pol-Poleko erakustokian, Emakumearen Egunaren inguruan Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatutako argazki lehiaketako lanak. Parte hartu zuten herriko 9 argazkilariren artean, Dani Santosek lortu du lehen saria (20.000 pta. eta trofeoa) ale honetako portadako argazkiari esker, Agustin Gurrutzagak bigarrena (15.000 eta trofeoa) eta, azkenik, Juan Antonio Unzurrunzagarrentzat izan da hirugarrena (10.000 eta trofeoa). Epaimahaia Marga López Emakumearen Arloko Ekintzetako Taldeko kidea, Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kidea eta Arantzazu Loidi Gizarte Ongizaterako Udal Batzordekoak osatu zuten.

Arantzazu Loidik aipatu digunez, *"kalitate ona izan da bialdutako 38 argazkietan baina erretratuak baztertu eta emakumearen ikuspegi zabalago bat ematen zutenak aukeratu ditugu; lehen sariko argazkian neskak sokatiran (orainarte gizonen kiroltzat hartu izan dena) agertzen*

# EMAKUMEA

*Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatu duen argazki lehiaketako lanak ikusgai Pol-Polen*

# eta ARGAZKIA



Agustin Gurrutzagak bigarren saria lortu du. Goian berak aurkeztutako argazkietako bat.

*dira eta esfortzuaren ikuspegia ondo azaltzen dela uste dugu; bigarrenak, berriz, giro orienta-*

*la du eta bi emakumek, beren haurrekin, amatasunaren aurpegia ematen digute; eta azkenik, hirugarrenean, lanaren ikuspegia ematen da emakume arrantzale baten bidez".*

Antolatzaileek faltan bota izan duten bakarra emakumeen parte-hartzea izan da, guztiak gizonen izan baitira;

*"nagusiki argazki taldekoek parte hartu dute eta faltan bota dira emakumezkoak bai, beste ikuspegiren bat eman zezaketelako" adierazi digu Loidik.*

Sari banaketa bihar larunbata eguerdiko ordu-batetan egingo da Pol-Polen eta erakusketa igandera arte ikusi ahal izango da. (19.00-21.00)

**Dani Santosen argazki bat izan da lehiaketara aurkeztu diren 36 argazkietatik onena**



**GAZTELU**  
**Burdinaki denda**

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

**ETXAGI**

**Jatetxea**  
**Afariak-Bataioak**  
**Jaunartzeak**  
**Eguneko menua**  
**Gosariak-Bazkariak**

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

## Reality showak

Telebista piztu, eta bakarrik negarrik, kexak eta bi duroko alprojak azaltzen dira. Reality showak gure pantailak bete dituzte, jendeak barruan duen frantziskanoa ateratzen du eta telebistaren aurrean Lobatón, J. Lago, Nieves Herrero...eta abarrek egiten dituzten programak ahozabalik eguneroko txalokatzen ditu.

Bertan azaltzen diren arazoak izugarriak iruditzen zaizkigu, eskerrak holakorik ez zaidala gertatu! ahozkatzen dugu ixil ixilik.

Baina holako programak egundoko kaltea sortzen dute, pentsatu ezinezko gertaerak normalizat hartzen ditugu eta eguneroko bihurtzen dira. Biolentzia, kalean eta etxeetan gero eta gehiago nabaritzen da, bortxaketak egiteko irrikia sustatzen dute, sentsibiltatea hitz abstrakto bihurtu da, laister ejekuzioak zuzenean eskeiniko dizkigute.

Agian Lobatonek telebistatik zehar darabilen emagaldua aurkitu egingo du. Agian Gemiok nire amodiozko arazoak konponduko ditu, agian Lagok nire ezkontza egunean, aldarean zera galdetuko dit:

- Alex, X maite al duzu? Baina ez erantzun orain, publizitatearen ostean!

ALEX MUELA

## Euskal izenak nola idatzen ditudan

Literatur zaletasunen artean idazle euskaldunak sartu zitzaikidanean euskal izaneak larunbatean ikusten nuen grafiaz idatzen hasi nintzen. Alfabetatze prozesu hori zortzi urte dela hasi zen..., eta oraindik ez da bultzatu.

Adibide bat jartzearren Gipuzkoa hitza jarriko nuke, Gipuzkoa hitza idazlearen grafiaz idatzi izan dut beti, batzutan Sarako abade baten grafiaz (behin edo birritan) eta beste batzutan gaur egungo eraz. Martxoko "Natura" aldizkarian, kasu, argitaratu didaten diapositibaren oinean gaur egungo ortografiak jarri nuen hitz hori. Nere izen eta abizena ere grafia modernoaz idatzita joan ziren (batere azentorik gabe).

JESUS MARI ETXEBERRIA

## Plangintza Hidrologikoa dela eta

Estatu Espainiarrak eginiko Plangintza Hidrologikoa Itoizko urtegi garrantzitsuenetarikoa bada, ez dugun ahaztu behar Euskal Herrian guztira beste 15 urtegi egiteko proposamena daudela.

Gure bailara kontuan hartzen badugu "Norte III" Plangintza Hidrologikoa 2 urtegi eraikitzea aurrikustatu du: Urkulu II eta Arantzazu.

Gure iritziz, urtegiak uren hornidura egokia ziurtatzeko "azken konponbidea" dira, alde aurretik honako neurriak hartu beharko liriateke:

1. Banaketa sareko galerak murriztu. Uraren % 50-80ko bitartea gertzen da banaketan, sareak dituen hutsak direla eta.

2. Ur birziklatua erabili zenbait kontsumotarako (ureztaketak, industria mailan eta abar).

3. Ureztaketa sistemak hobetzea. Ureztatzeko erabiltzen den ur gehiena galdu egiten baita.

Guizti hau ez bada egiten ezin dugun onartu urtegi baten eraikuntza, errepresentatzen duen kostu sozial, ekonomiko eta ekologikoengatik.

EGUZKI

## Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



# KIUB kontsumitzaileen bulegoa itxi egingo da

Asteleheneko Plenoan KIUB Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa kentzeko erabakia hartu zuen Bergarako Udalbatzak; EAJk alde botatu zuen, PSE-EE eta EAK kontra eta HB abstentitu egin zen. Victoriano Gallastegi (EAJ) alkatearen hitzetan, "zerbitzu hau kentzea erabaki da EUDEL udalen elkarteak bala gomendatu digulako (gai hori udalen kompetentzia ez dela esanez) eta, bestalde, zerbitzu horrengatik jasotako dirulaguntza jeisten doalako (% 50a 1992an eta % 44a 1993an)". Aurreko urtean 5.462.000 pta.ko aurrekontua izan zuen

egunean 4 orduko zerbitzua (UCE eta Udalaren artean banatuta) eskeintzen duen KIUBeko bulegoak.

Javier Cendoyaren (PSE-EE) ustetan, "10 urte betetzeaz dagoen bulego hori kentzea bankasartze baundia da, Elgeta, Antzuola eta Soraluzei ere zerbitzua emateagatik % 70eko dirulaguntza jaso bait dezake Udalak". PSE-EE alderdiak aurten zerbitzua mantendu eta etorkizunerako finantziabideak aztertzea eskatu zuen. Hitza eskatuta zuen UCEko (Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkarte) kide batek ezin izan zuen Plenoan




Txaro Jauregi, kontsumitzaileen bulegoko langilea.

hitzezin berandu heltzeagatik.

Pleno amaieran, alkatearekin eta kazetariekin berbetan, UCEko ordezkariak esan zuen "bulegoa Udalari 400-500.000 pta. inguru kostatzen zaiola, azken batean KIUB-en bi orduz egoten den udal langilearen soldata aurrekontuan jasotzen baita".

Plenoan merkatuko postuak adjudikatzeko lehen hartutako erabakia balio gabe utzi eta lehia-keta arautuko duten baldintza pleguak onartu ziren, alderdi guztien oneritziarekin, EArenarekin ezik. Era berean, Xabier Zabaletak (EAJ) bere zinegotzi postua hartu zuen, bere karguari zin egin eta gero.

## ERABAKITZEKO ORDUA DA

 **RANZADI  
IKASTOLA**

2. URTETIK 8. MAILARA ARTEKO AURREMATRIKULA  
AZKEN EGUNA

**MARTXOAK 14**

## ◆ Pintadengatik epaiketa

Atzo osteguna herriko 11 gazte epaitu zituzten Bergarako Epaitegian pasa den uztailaren 23an Plazan egindako pintada batzuzengatik. Fiskalak auziaren gastuak ordaindu eta 20.000 pta.ko zigorra eskatu zuen A.S. gaztearentzat, ertzainen aurrean ez identifikatzeagatik. Era berean, akusatutako bi gazte kargu gabe libre uztea eskatu zuen dirudienez beste pertsona batzuzekin konfunditu zituztelako. Gainontzeko gazteak ere libre uztea eskatu zuen "pintadak berek egin zituztela ez delako frogatu". Defentsaren abokatuak A.S.ren absoluzioa ere eskatu zuen, "identifikatu zuten ertzainek ez dutelako gaur deklaratu eta identifikatze-ko eskatu ziotenean, beren mehatxuengatik hartu zuen inpresioagatik zer erantzun ez zekiela geratu zelako". Auzia sententziaren zai geratu da. Bestalde, epaiketaren aurka protestatzeko atzo Ipintza Institutuko ikasleek greba egin zuten eta Migel Altuna Institutuan, berriz, 4 orduko paroa izan zen. Epaiketa ondoren manifestazioa izan zen herriko kaleetan.

## ◆ Zuhaitz eguna

Udalak antolatuta, bihar Zuhaitz Eguna 94 ospatuko da. 10-11 urte bitarteko haurrek hainbat zuhaitz mota landatuko dituzte San Martzialen. 11etan autobusak aterako dira Bus Geltokitik.

## ◆ Irati Eguna Agoitzen

Eguzkik antolatuta, igandean Irati Eguna ospatuko da. Izen-ematea ohizko tokietan.



Herriko bost dendari merkatal gunea jartzeko aukera aztertzen ari dira.

## Merkatal gunea zabaltzeko asmotan

*Herriko bost dendari Bankinter ondoko lokala jartzeko prestatzen ari dira.*

Oraingo merkaturako 3 komertziantek eta herriko beste bik Herri-lagunak kalean, Bankinter ondoan, zentru komertzial bat jartzeko asmoa dute. Badirudi aipatutako merkaturako 3 komertziantek horiek azoka berrira joateko aukera baztertu dutela dagoeneko eta beste bi komertzianterekin batera Herri-lagunakeko lokala eskuratzeko negoziatioetan hasi dira. Gogoratu behar da lehengo merkaturako 7 komertziantek merkatu berrira joateko asmorik ez dutela jakitera eman zutela, postuen prezioa jeitsi eta bertan hainbat hobekuntza egiten ez diren bitartean. Postuak lehiaketa bidez adjudikatze-ko prozesua martxan da.

Printzipioz, esan bezala, 5 komertzio joango lirake bertan: orain arte merkaturan egon diren

konjelatuak, zaldi haragi eta arrain-degi postu bana eta, bestalde, fruteria bat eta Zangitu pintura dendak, lokalaren jabeak, jarriko lukkeen beste bat.

Aipatutako lokalean, orain hilabete batzuz, jatetxe txino bat jartzeko aukera aztertu zen baina hori bertan behera geratu da. Horrez gain, enpresa multinazional batek toki berean supermerkatu bat jartzeko interesa ere erakutsi zuen. Baina hori ere ezerezean geratu zen. Orain komertziantek aurrera darraite euren asmoekin; "bai, interesa daukagu horra joateko baina oraindik ere Udaletxearen baimena behar dugu" azaldu dio BERRIGARARI merkatal gunea zabaltzeko asmotan dabilen dendarietako batek. Hemendik gutxira argitu daiteke guztia.

# LARREA

## TABERNA

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

# Mekolalde

Mekolalde auzoa, tfnoa: 76 59 14

## AUTOAK

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- ESKAINTZA BIKAINA: 4 gupil erosi eta 2 ordaindu!!



# Santa Marina eliza toperaino Iñigo Martinez "Memin"en aldeko hileta elizkizunetan

*Herrian oso ezaguna zen, besteak beste, euskararen aldeko ekimen ugartan buru-belarri ari zelako*

Joan zen igandean egin ziren Santa Marina elizan Iñigo Martinez "Memin", 22 urteko bergararren aldeko hileta elizkizunak. Parrokia jendez gainezka zegoela, larunbat goizean San Migel inguruan hilik agertu zen gazteari azken agurra egin zitzaion. Hileta elizkizunak arratsaldeko 6etan hasi ziren eta hauek amaitu ostean Ikurrin Dantza eskaini zuen Xamatx dantza taldeak, txalaparta doinuen artean. Iñigo Martinezen errautsak Irukutzetako zelaietan sakabanatu zituzten asteazkenean senitarte-koek eta bere lagunak.

## Saltsa guztietan

Iñigo Martinez oso ezaguna zen herrian. Gizarte eta kultura mailako hainbat taldetan jardun zuen, besteak beste, Euskal Herrian Euskaraz erakundean ibilia zen, JARDUNen ere bai eta orain dela gutxi Bergaran AEKko euskaltegia berriz ere martxan jartzen buru-belarri aritu zen. Horrez

gain, Kukuma hankapalu taldeko kide ere bazen Andoni Goiti eta Mikel Ibarzabalekin batera eta Musika Eskolak bultzatutako "Miserableak" muntaiaren dekorazioa pres-tatu zuen bere taldekideekin batera.

## Ostegunetik desagertua

Iñigo Martinezen gorpua larunbat goizean aurkitu zuten bere lagunak San Migel eta Landarraitx artean. Ostegun goizean ikusi zuten azken aldiz, honek mendira bueltatxo bat ematera zihoala esan zienean. Ostiral goizean, etxera agertu ez zela eta, kezkatzen hasi ziren bere senitarte-koak eta Ertzaintzaren komisaldegian parte eman zuten. Harrezkero, Ertzaintzak eta bere lagunak mendian Iñigoren arrastoaren bila ibili ziren ostiral arratsalde eta larunbat goizean. Zapatuan, 70 bat lagun elkartu ziren San Martin Plazan mendira "Memin"-en bila joateko asmoarekin eta San Migel inguru-

an ostegunean ikusi zutela zioen arrasto bati jarraituz goizeko 10.30ak inguruan urkatuta topatu zuten Landarraitx bidean. Helikopteroz Zumarragako eritexera eraman zuten arratsaldeko ordu 2ak aldera.

## Omenaldia

Herriko hainbat kolektibok eta bere lagunak omenalditxo bat egiteko asmotan dabiltza, eguna oraindik zehazteke dagoen arren. Juan Balentziaga artistari eskultura bat egitea enkargatu diote Martinez-Basabe familiak eta lagunak. Asmoa Irukurutzeta gainean jartzea da eta hitz hauek jarriko

dira eskulturan: "Izar berri bat sortu da Euskal Herriko zeru gainean".

Bestalde, larunbat honetan Eibarren eskainiko den "Miserableak" muntaiaren koreografiaz, Kukumako Andoni Goiti eta Mikel Ibarzabalez gain Paulo Elkoro arduratuko da "Memin" ordezkatuz.

Familiarte-koek eta lagunak Bergarako herriari eta bereziki ostiral eta larunbatean Iñigo Martinez bilatzen aritu zirenei eskerrak eman nahi dizkiete.

BERRIGARAK, lerro hauetatik, errebista egiten dugunon samin agurra bilai nahi dio Iñigo Martinez "Memin"en familiari.



Iñigo Martinez, Kukuma hankapalu taldeko kidea zen.

**FANCY**

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

**iRUDI**

**Erlojudenda**

**Bitxitegia**

Ibargarai, 2

☎ 76 51 65

## Gure flora aberastasuna

# Hagina (Taxus baccata)

### - Zein berezitasun ditu haginak?


- Zuhaitz edo zuhaixka da. Hostoak orlegi ilunak eta orratz txurikoak ditu eta urte guztian mantentzen dira (ez dira udazkenean erortzen). Espezie honek 15 metro edo gehiago hartu ditzake alturan baina mendian ikusten direnak normalean txikiagoak izaten dira. Fruitu deigarriak, gorriak. Hagina oso poliki hazten den zuhaitza da, baina milaka urtetik gora bizitzera heltzen direnak badira.

### - Pozoitsua omen da.

- Beste landare asko bezala oso toxikoa da, "taxina" izeneko pozoibat daukalako. Pozoi honek animalien nerbio sisteman kalteak sortzen ditu, kasu larrietan heriotza eraginez. Dena den, lasai: oso zaila da hori gertatzea eta ez dugu inoiz horrelakorik entzun.

Zuhaitz guztian, hazia inguratzen duen mamia da zati ez pozoitsu baka-

rra eta mami horretan pozoia ez egotearen arrazoi oso bitxia da: haginaren haziak txoriei esker sakabanatzen dira basoan zehar; txoriek fruitu gorriak jaten dituzte eta horrela fruitu horren banean dagoen hazia jatorrizko zuhaitzetik urruntzen dute, hazitik sortuko den zuhaitz berriaren haunditzea errazagoa eginez eta espeziea hedatuz. Dena den, eta hazia toxikoa denez, hobe fruitu horiek ez eskura-



Bergarako mendietan inork haginaren bat ezagutzen badu, datu interesgarri hori BERRIGARAra bialtzea ondo egongo litzateke.



**IÑAKI IRIZAR**  
(biologoa)

tzea.

### - Eta mitolojiak zer dio haginari buruz?

- Pozoitsua delako eta seguraski bere kolore ilunagatik ere bai, hagina askotan heriotzarekin erlazionatu da historia eta mitolojian. Kanposantu batzutan nekosta edo zipresen ordez haginak erabili izan dira eta inpernuko bidea haginekin mugatzen dela esan

duenik ere badago.

### - Non aurkitu daitezke haginak?

- European, Asiaren mendebaldean eta Afrikaren iparraldean aurkitu daitezke. Euskal Herrian, ingurune menditsuetan, leku ezku eta haitzarte maldatsuetan, inoiz ez ugaria. Jardinetan ere erabiltzen da zuhaitz hau.

### - Eta Bergara eta bere inguruetan?

- Gipuzkoako harrirri hiru hagin azaldu arren, gaur egun ez da erreza zuhaitz hauek ikustea gure lurraldean. Asko erabili izan da zuhaitz honen egurra historian zehar (arkuak egiteko Erdi Aroan, egurrezko musika tresnak eta apaingarriak egiteko beranduago...). Ondorioz, lehen ugariagoa bazen ere gaur egun benetan gutxi dago eta Gipuzkoan adibidez, espezie babestua da. Bergaran, jardinetan ezagutzen dugu bakarririk. Etxezarretako jardinean hagin izugarriak daude. Bergaran bertan Santanana eta Usondon ere badaude ale bana. Bere urritasuna kontutan harturik, Udalak ere noizbehinka sartzen ditu han-hemen. Jubilatuetan, Irizar jauregiko jardintxoan... eta jardinetan partikularretan ere gero eta gehiago ikusten hasia da. Herriko mendietan ez dugu ikusi.

## KIZKUR



**Ileapaindegia  
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

## LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

**BERGARA**

**I**GPak (Interbentzio gune partehartzaileak) martxan daude eta Deba Garaiko taldeak Arrasateko Aita Menni ospitalean biltzen dira.

Taldeak 25 lagunez osatuta daude eta Bergararik 26 lagun joan dira. Taldeetan Maltzaga-Urbinari buruz dauden proiektu eta asmo ezberdinak eztabaidatzeko aukera izan dute. Horretarako IGPetara proiektua aurkeztu dutenak euren alternatibak eztabaida taldeen aurrean defendatu behar izan dituzte. Horren arabera 3 alternatiba nagusi aurkeztu dira: Autopistaren aldekoa, Autobidearen aldekoa eta orain daukagun errepidea konpontzearen aldekoa.

Dagoeneko eztabaidan nukleo batzuk bukatu dute euren zeregina eta horietako bat Arantzazu Loidi eta Aitor Iturriagarena izan da. Biek Udaletxean lan egiten dute eta talde piloan izan ditugu.

*"Urtarrilaren erdialdean izan ginen eta programa 8 ordukoa bazen ere, lehen egunean 11 ordu eman genituen. Hirugarren egunetik aurrera ordutegia errespetatzen hasi ziren. Funtzionamenduari dagokionez 40 minutuko ponentziak izaten ziren eta adituei entzun ondoren taldeka eztabaidatu eta galderak prestatzen genituen. Egunean 8 bat ponentzia en-*



Maltzaga eta Urbina lotuko dituen errepideari buruz eztabaidatzen ari dira Interbentzio Gune Partehartzaileetan. Maiatzean jakingo dugu IGPek erabaki dutena.

# MALTZAGA-URBINA

## Proiektuak eztabaidan

**Maltzaga-Urbina**ren inguruan eztabaidatzeko, pasa den urtarriletik aurrera martxan dira IGPak (Interbentzio Gune Partehartzaileak). Gune horietan Maltzaga-Urbinak eragina duen herrietako biztanleak parte hartzen ari dira eta astebetz proiektuaren inguruan dauden alternatiba guztien berri jaso eta eztabaidatzeko aukera dute. Bertan izandako bi lagunekin berba egiteko aukera izan dugu eta eurek kontatu digute nolako izan den IGPetan izan duten esperientzia.

*tzuten eta eztabaidatzen genituen".*

IGPetan parte hartu dutenak zozketaz hauta-

tuak izan dira eta ez dira, gehienak behintzat, gai ekologiko edo ingenierriz adituak.

**Ponentzia ulergarriak**

Baina Loidik adierazi digunez hori ez da gau-

**SURPE**  
**Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



**ETXE BERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



Urtarrilean hasi eta otsailera bitartean burutu ziren Deba Garaiko IGPak Arrasaten.

zak ulertzeko oztopoa izan. "Nik pentsatzen nuen hasiera batean, askoz teknikoagoa izan behar zela. Gainera entzunda tekniko neutralak egon behar zirela, gauzak azaltzeko eta horrelako historiak. Baina gero, bara joan eta gero, gauzak ulertzeko ez nuen zailtasun handirik izan".

Iturriagak horri buruz gehiago adierazi digu. "IGPen antolatzaileentzat ere komenigarria zen gauzak ulergarri azaltzea jende guztia-arentzat. Bestela euren ponentziaren defentsa nabiko ahul gelditzen zen. Nik uste dut denak abalegindu zirela horretan, batzuk tresna batzuekin, baina ulertzeko nabiko errazak. Halere izan ziren ulertzeko zailak, horko datu, diapositiba etbekin bildurtuta gelditzen ziren".

IGP eztabaida talde bakoitzeko 25 lagun biltzen ziren eta txanda ba-

koitzak 5 laguneko talde errotatiboak ditu. Loidi eta Iturriagari amaitu zaie esperientzia eta orain balorazioa egiteko ordua heldu da. "Nik Maltzaga-Urbina prentsatik jarraitu izan dut. Baina orain gauzak zebatzago ikus-

ezagutu hemen eta badi-rudi Espainia osoan ez dela eman esperientzia. Gero aukera edukitzea jende ezberdinarekin gauza bati buruz hitz egiteko, hori ere interesantea izan da. Gainera horrelako gaietan politi-

## "IGPak ez balira izango, agian, inork ez luke Maltzaga-Urbina proiektuei buruzko informaziorik edukiko"

ARANTZAZU LOIDI, DEBA GARAICO IGPetan JARDUNDAKOA

ten ditut; gure artean taldean ez gara kontsentsu batera heldu, bakoitzak bere eritzia du" dio Loidik. Bere aldetik Iturriagarentzat esperientzia "mundiala" izan da. "Alde batetik balakorik ez dugu

ka asko nabasten da eta postura diferenteak izan arren, gure artean lasai hitz egiteko aukera izan dugu. Halaber, tekniko neutralak izatean eurei galderak egiteko aukera zegoen eta gauzak erraz

azaltzen saiatzen ziren oso oso polita izan da".

**"Informazioa gehiago zabaldu behar da"**

Orain arte IGPetan izandako bi lagunek beraren baliagarritasuna aipatu dute, baina Iturriagak IGPen balioa azpimarratu arren, Maltzaga-Urbinarengatik inguruan dauden alternatiba ezberdinekin buruzko informazioa gertarera gehiago zabaldu beharko litzatekeela esan digu. "Niretzat ez da ondo: jende gehienak Maltzaga-Urbinari buruz ez du informazio handiegirik".

Loidik bere lagunarekin pentsamenduari beste irakurketa bat eman dio. "IGPak ez balira izango agian, inork ez luke proiektuari buruzko informaziorik izango eta lordek ere ez lukete izango euren alternatibak azaltzeko markorik izango".

Proiektu hau hasi berterik ez da egin baina gauzak hobetu daitezkeela uste du Iturriagak. "Euskara aldetik oso aukera gutxi geneukan gure artean euskaraz egin behar izateko. Taldean beti izaten zen erdaldumen bat eta ponenteak derri gortuak zeuden erderatzen egitera, nabiz eta euskaraz jakin".

IGPetako taldeek asetebe irauten dute eta azken egunean test antzeko bat egin behar izan zuten. "Oso kuriooa izan zen Pantaila batean galderak bat genuen eta maila batzuen bitartez aukeratu behar genituen. 20 galdera inguru erantzun behar izan genituen eta horretan egun osoa eman genuen. Horren bitartean IGP taldeko kideok ez da-

kigu besteak hartu duen erabakia eta talde osoaren erabakia ere ez daki-gu. Datu horiek ordenadore diskette batean gelditzen dira eta bat Gizearteaz enpresak hartzen du eta bestea IGPKo taldeak izendatutako or-

dezkariaren esku gelditzen da" dio Iturriagak.

Beraz, oraindik IGPEk erabaki dutena ezagutze-  
ra emateko edo publiko egiteko maiatzera arte itxaron beharko dugu, nahiz eta ordenadoreek emaitzak jakin. ■

## IGPetan erabakitzen dena jakiteko maiatzera arte itxaron beharko dugu



Arantzazu Loidi eta Aitor Iturriaga Arrasaten burutu diren IGPetan jardun dute.

# Iritziak aukeran

**Maltzaga-Urbinak izan behar duenari buruz ikuspegi ugari daude. Baina laburbilduz, IGPetan aurkeztutako alternatibak asko izan diren arren, hiru aukera ezberdin daude. Autopista peajeduna, autobidea eta orain dagoen errepidea berritzea. Erakunde publikoek (Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza) Debasa (Deba bailarako autobidea) autopistaren alternatiba bultzatzen duen elkarte publikoa sortu dute. Debasatik adierazi digutenez eurak peaje arineko autopistaren alde daude eta ez dute ikusten egokia denik orain dagoen errepideari hobekuntzak egitea. "Horrela Maltzaga-Urbina ez litzateke sartuko Europar errepide sareen barruan eta gainera autobidea edo errepidea hobetzean gure zergetatik bakarrik ordaindu beharko genuke, baina peajearekin euskaldunetz aparte autopista erabiltzen dutenek ere ordainduko dute" esan digute Debasakoek. Alderdi politikoei dagokienez hauek ere hiru alternatiben artean banatu dituzte euren eritzia. EAJ eta PSOE-EE autopistaren alde, EA autobidearen alde eta HB errepidean hobekuntzak egitearen alde agertu da. Bestalde gure herrian dauden hiru talde ekologistak, Mendia Bizirik, Eguzki eta Eki Deba Bailara Bizi Bizirik plataformaren barruan daude sartuta. Plataforma orain dugun errepidean hobekuntzak egitearen alde azaldu da, beren ustez inpaktu ekologiko gutxien duen alternatiba baita. Gainera plataformak behin eta berriz adierazi duenez hobekuntzak merkeagoak dira eta funtzionalitateari dagokionez gure bailaran zehar dabilen trafikoarentzat nahikoa izango litzateke hobekuntzekin. Bestalde IGPen prozesua datorren maiatzean amaituko da eta hortik irtengo den erabakia derrigorrez betetzekoa izango ez den arren, azken erabakia instituzioen menpe baitago, bailaran bizi garenon eritzia azalduko du.**

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
LOS CAZADORES  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

**YAZKI**

UME GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3

☎ 76 16 54

Ibargarai 8

☎ 76 54 73

**BERGARA**

**Karrozeria**

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

## MAITASUNA... oso kontzeptu zabala da, bestela irakur itzazu hurrengo gutun, bertso eta artikulu hauek...

### Mometu zoriontsuak

Eskutitz honekin, zurekin pasatu ditudan momentu zoriontsuak eskertu nahi dizkizut. Zu ezagutu baino lehen ez nuen pentsatu nire bizitza betetzeko gai izango zinenik: maitasuna, poza, lasaitasuna, fidelitasuna eta konfidantza izan dira eman dizkidazun gauza politenak. Nere bizitzaren momentu txarretan zu izan zara indarra eman didazun lagun bakarra aurrera jarraitu ahal izateko; tristeziak ni menperatzen ninduenean, zuk alaitu egiten ninduzun. Eskutitz hau idazten dudan bitartean nire eskuak dardarka ari dira emozioz, zu beti izango zaitudala lau jakitean, ziur dakit ez nauzula inoiz abandonatuko. Denbora pasatzen denean sentimenduak aldatuaz doaz, transformatu egiten dira eta atzera begiratzen dugunean lehen amodioa zena orain gorroto bihurtu dela ikusten dugu, baina ez dut beldurrik, ez, badakit gure artean ez dela hori gertatuko, gu lotzen gaituen indarra ezer baino indartsuagoa eta boteretsuagoa da eta. Ez dakit nola adierazi sentitzen dudana hitzekin, hala eta guztiz ere ez dut uste adierazi daitekeenik hain sentimendu sakona.

Gaur bertan, zu ezagutu zintudan egun zoragarri hartaz gogoratu naiz. Hasieran ez nuen zutaz konfidantza askorik, baina zenbat aldatu diren gauzak! Orain zu begiratu zaitut eta beldurra sentitzen dut: zu galtzeari beldurra diot nire txakur maitea. Urte asko pasatu dira eta zure ilea kolorez aldatu arren eta zure gorputza nekatuagoa egon arren, zure begirada betikoa da; begirada xamur hori nahiz eta laster itzali, nire bihotzean betirako biziko da.

EZIN IZANGO DIZUT INOIZ ESKERTU

EMAN DIDAZUN GUZTIA

TXAKUR MAITEA

IDOIA PINTO

5.A. (A EREDUKOA)

*Denbora  
pasatzen  
denean  
sentimenduak  
aldatuaz doaz,  
transformatu  
egiten dira eta  
atzera  
begiratzen  
dugunean lehen  
amodioa zena  
orain gorroto  
bihurtu dela  
ikusten dugu,  
baina ez dut  
beldurrik, ez,  
badakit gure  
artean ez dela  
hori gertatuko,  
gu lotzen  
gaituen indarra  
ezer baino  
indartsuagoa  
eta  
boteretsuagoa  
da eta.*

### Zu zara bakarra

Mundu hontan ez dago zu bezalakorik zurekin naizenean ez dut nahi besterik batera gaudenean ez da falta grinik ta zu ez zaudenean nago ni bakarrik

Mesedez entzun zazu nire berba hotsa maitasunez gainezka dadukat bihotza heldu dela ordua urtzeko izotza eskatuko nizuke azkenik ezkontza


4 M.D.

### Kaixo maitea

Joan den irailetik ez zaitut ikusi eta su hartzeko sekulako gogoia daukat. Zu gabe nagoenean oso arraro nago, zerbait falta zait eta nire barruan hutsune handi bat dago. Zurekin aldi txarrak eta aldi onak pasatu ditut. Batzuetan lurrera botatzen ninduzun, beste batzutan nik botatzen zintudan... baina, dena dela, zurekin oso ondo pasatu dut. Egun batzuetan zu eta ni etxetik irteten ginen eta lau edo lau ordu t'erdi egoten ginen etxetik kanpo. Zuk eta biok kilometro asko egiten genituen eta Euskal Herriko errepideetan denbora asko pasatu genuen elkarrekin. Batzuetan arazoak izaten genituen, bai, zure gurpilak zulatzen ziren, apurtu egiten ziren zure burdinak eta nire indarrak ere askotan egoten ziren..., baina aurkitzen genien irtenbide bat arazo guzti hauei. Behin batez arazo larri bat izan genuen: kotxe batek gu harrapatu gintuen! zure gorputza apurtu zen eta niri eskuak apurtu zitzaizkidan. Urte hura oso txarra izan zen

guretzat, baina beno, hura ere pasatu zen. Egun hura ez zen gozoa izan, tarteka-marteka errepidean euriak busti gintuen eta hotz handia pasatu genuen. Guzti honengatik ez ditut inoiz ahaztuko zurekin pasatu ditudan momentuak eta errepika daitezela nahi dut. Maiteminduen eguna dela eta idatzi dizut gutun hau, eta maite zaitudalakao ere bai, noski! Beno laztana, ez daukat beste esatekorik. Agur eta laister arte.

AGUSTIN H.  
5.M.



### ligatzeko aholku batzuk

**Lehenbizi egin behar den gauza da neskari nor zaren esan. Gero berarekin hitz egin behar duzu, eta diskoteka batean baldin bazaude, zerbait edatera gonbidatu. Gezur txiki bat esan behar diozu kotxea daukazula esanez, eta gero ea zurekin dantzatu nahi duen eskatzen diozu. Neskek, kotxea daukazula entzuten dutenean, zorutzen dira, eta zure gainera etorriko dira, zuk zer egin gabe. Hau honela ez bada, egin behar duzuna da, beste neskaren bat bilatzen hasi. Beno eman ditugun aholku guzti hauek tontokeriak baino ez dira izan, eta gure ustez, onena izango litzateke norbera den modukoa aurkeztea, eta uste dugu honela ez duzula inolako arazorik izango. Gaur ez baduzu neskarik lortzen, ziur egon bihar lortuko duzula, eta bihar ez bada, egon lasai laister lortuko duzu eta. Besterik gabe, eskutitz honetaz baliatzen gara nor garen esateko.**

ALONSO SÁNCHEZ  
JUAN SÁNCHEZ  
PATXI PINEDA  
(A EREDUKOAK)

# Nork egiten ditu etxeko lanak zuenean?



**Marivi Iturriaga**

46 urte, etxekoandrea

Nik, baina seme-alabek noizean behin laguntzen didate. Senarrak sukaldean batzutan; baina kanpoan gehiago egiten du.



**Aitor Pineda**

16 urte, ikaslea

Etxeko lan gutxi egiten dut; ohea egin eta platerak garbitu batzutan. Gehiena amak egiten du eta nere arrebak nere antzera.



**Mari Trini Martin**

28 urte, langabetua

Nere amak eta nik batzutan laguntzen diot. Aitak ezer ere eta anaiak bere logela eta errekauek noizean behin.



**Pedro Rodríguez**

23 urte, langabetua

Normalean nere amak. Nik ohea egin eta puntu. Gauza gutxi, berak egiten du dena.



**Marga López**

37 urte, langilea

Neuk egiten ditut. Gizonak ere pixkatxo bat laguntzen dit baina danok bezala... hori, lagundu.



**Jose Mari Oregi**

68 urte, jubilatua

Andreak. Nik errekauek, mahai ipini... zedozetan lagundu baina andreak egiten du ia dena.



**TOSHARE**

• ILEAPAINDEGI MISTOA •  
• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea  
Tfnoa: 76 29 70  
**BERGARA**

**Mujika**

**Jantzidenda**

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA**

**Banatzailleak**

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...  
Martokua 32, tfnoa: 764594

**LITAR**



**altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**Aldoka  
Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA





## Eztabaida bizian

NIP (IGP)ko taldeek eztabaida bizian aurrera darraite Maltzaga-Urbina proiektua bailararentzat eta Euskal Herriko errepide sarearentzat mesederako izango ote den aztertuz. Bitartean talde ekolojistek, Herri Batasunak eta Leintz Gatzaga eta Landako biztanleek autopistaren aurkako jarrera plazaratu dute; Arrasateko MCCk eta bailarako ehundaka entpresak, aldiz, adostasuna.

Lehen taldeak bailara zeharkatzen duen errepidea sakonki berriztea eskatzen du. Bigarrenak, berriztatze lanak eta autopistaren eraikuntza. Beraz NIPetik kanpo-barneko eztabaida sekreto da, gatazka dialektikoa bide teknikoetatik ari da. Guztien adostasuna dago gaurko karreterak bete behar dituen zereginak onartezinak direla agertzerakoan. Bailara dagoen errepidearen hobekuntza oihukatzen ari da. Instituzioek erronka honi irtenbide egoki bat eman behar diote. Inbertsioa, 13.000 milioitik gorakoa.

Autopistari dagokionez, arazo larriena Bilbo-Behobia autopistaren peajea luzatzearekin lotzen da proiektuaren finantzar etorkizuna. Jarri daitezke peaje bigunak edo politikoak, Administrazio publikoak bereganatu ditzake prorrogaren etekinak... konponbide asko daude. Azken finean, herrialde honetan errepide kilometro bat egiteko 1.000 milioi gastatu behar dira. Nola hala, kostu horrek eragina izango du derrigorrez gure poltsikoetan. Kontuak kontu, arazoa zera da: gizarteak inbertsio horiek nola bereganatzen dituen, denon artean, erabiltzaileen artean? Auskalo.

**Iñigo URRUTIA**



## Tratu txar militarrek

Soldaduzkan gazteak gizontzeko erabiltzen diren formula eta tratuen irudiak ikusi ahal izan dira duela gutxi. Mallorkan operazio berezietako konpantiako 18 soldaduk koarteleatik ihes egin eta tratu txarrak salatu dituzte. Orain arrestatuta daude.

COES ezagun hauetako beterano batzuk 36 arraultza eraman zizkien ihes egin zuten soldaduei. "Orain arte *kakati* hauek izan ez zutena, izan dezaten" esaten zuten.

Neskak etxean gelditu behar dira. Soldaduzka eta gizontasuna lotu egiten dituzte. Nik, aldiz, gazte-gaztetxo izaten jarraitu nahi dut eta ez naiz koartelera azaldu arrazoi askogaitik.

Gutxienez berrogei urtean Euskal Herria espainolizatu duten militar zapaltzaileekin ez dute ezer jakin nahi eta honelako Armadarik gabeko mundu justu eta berdinago baten sinisten dut.

Diktadura militar zaharraren jarraipena den Estatu "demokratikoan" ez da justiziarik gainera. Intsumisoei epaketak barregarriak dira. Deliktu berdinagatik, zigor ezberdinak jartzen dira, eta epaile teoriarik independientek Gobernuaren erabakiaren menpe daude.

Arrazoi gehiago badira, orrialde hau goitik behera eta bazter batetik besteraino betetzeko beste.

**Jon ALTUNA**

**ARREGUI, E.M.**



**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**Aranzabal**

**OIHALAK**

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

**FS**  **oto sistema**

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneiterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Ezkerretik eskumara, zutik: Bittor Jimenez, Iker Ibarguren, Aritz Juarros, Pedro Zafra, Iñaki Izagirre, Oier Bolibar, Iban Loiola, Ekain Manso eta Igor Unzurrunzaga; makurtuta: Mikel Kareaga, Eñaut Unamuno, Jon Gallastegi, Josetxo Lizarralde, Joseba Duran, Jokin Mendiaratz eta Jon Ander Gallastegi. Argazkian, Markel Egaña, Jabier Martinez, Iban Lazkano, Aitor Usaola, Igor Alberdi, Gorka Ruiz de Egino, Jose Boubeta eta Gorka Arrieta falta dira.

**Jubenilak, lider**

**Bergara K.E.ko** jubenil futbol taldea denboraldi bikaina burutzen ari da. **Igor Unzurrunzaga** eta **Bittor Jimenez** jokalaria ohiek entrenatzen duten taldea hirugarren multzoko liderra dugu eta orainarte jokaturako 23 partiduetatik, 17 irabazi, 2 berdindu eta 4 bakarrik galdu ditu. Liga amaitzeko 11 partidurik faltan, bergararrak liderrak ditugu Añorgarekin berdinduta. Lehen postua eskuratu ezker, Ohorezko Ligarako igoera lortuko luke Bergarak.

**Jesus Mari Etxeberria  
Naturan**

**Jesus Mari Etxeberria** 25 urteko bergararrak bere lan bat *Natura* aldizkarian argitaratuta ikusi du. *Naturak*, hiler, bere irakurleen hainbat lan ezagutzera ematen ditu eta, martxoko zenbakian, Jesus Marik Oñatin ateratako argazki batek, bi orrialdetara, sail horri hasiera ematen zion. Jesus Mari, argazkizalea izateaz gain, Hezkuntza Zientziako ikaslea da UNEDen.



Jesus Mari Etxeberriaren argazki honetan Martin arrantzale bat ikus dezakezue.

**MUGICA**  
Goxotegia  
  
 Artekale, 3  
 ☎ 76 10 34  
**pastelak,  
errellenoak,  
tostoiak,  
tartak...**

**EDURNE**  
**Merzeria - Lenzeria**  
 D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

**TOKI-ONA**  
**Bodegoia-Taberna**  
 Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
 Kazolatxoak / Txabierroak  
 Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

**Antonio Alcaide "El juego de la oca"n**

**Antonio Alcaide** 24 urteko bergarar gazteak parte hartu zuen larunbatean Antena 3eko "El juego de la oca" saioan. **Emilio Aragonek** aurkezten duen programa honetan Manuelek ez zuen lan erreza izan eta 5 proba beldurgarri jarri zizkioten, tartean, martxan zegoen labadora haundi batean sartu eta 3 objektu bilatu. Antoniok, hamaika izerdi bota ondoren, 100.000 pta.ko saria eraman zuen eta 750.000 pta.ko lehen sariak gutxigatik ihes egin zion. Programa ostiralean grabatu zen, goizeko 10etatik gaueko 12etara. Landutako saria, dudarik ez.



Antioniok esan digunez, "benetan merezi izan du programa honetan parte hartzeak. Jendea bertara joatea animatuko nuke".

**Alazneri omenaldia**

**Alazne Irazabal** Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuko arduradun ohiak omenalditxo bat jaso zuen asteartean Kultur Etxean. Emakumeen taldeetako Eskulan Taldeak azken 4 urteetan beraiekin egindako lana eskertu nahi izan zion eta plaka oroigarri bat eta lora sorta eder bat eman zion. Emakumearen Eguna baino fetxa proposagorik ez zegoen eta hori ospatzeko, ondoren, luntxa izan zen.



Alazne Irazabalek bere lanaren errekonozimendua jaso zuen.

**Zertan dibardute ba?**



**Emilio Ucin**

San Migelpe elkarteko presidente aukeratu zuten pasa den otsailaren 20an. Emilio Ucin ek urtebetez presidente kargua hartu eta datorren urtean orain presidente orde den Martin Alberdiri utziko dio postua. Emilio Ucin ek 49 urte ditu eta orain 5 urtetik hona San Migelpeko bazkidea da. Bere esanetan, "gaur egun elkartean 144 bazkide dira (horietatik 44 jubilatu) eta hemendik 5 urtera 160ra hel gaitezkeela uste dut". Ucin en asmo nagusia maiatzean ospatzen den Aszenio Egune ko jaiak hobetzea izango da. Era berean, bazkideei ahalik eta erretzasun gehien eman eta elkartean beharrezkoak diren obra batzuk egin nahi dira.

**Zatoia**  
Boutique  
Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

**FERNANDEZ**  
  
**Oihal puskak**  
**Oihalak**  
San Antonio, 3    Ibargarai, 2  
☎ 76 22 93    ☎ 76 53 22

**anezka**  
**Udazkenerako oihalak**  
**eta lenzeria**  
Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

# Mertxe Laskurain

## Irakaslea


Mertxe Laskurain (45 urte, 3 seme-alaba) Euskal Literaturako klaseak ematen ditu Migel Altuna Institutuan orain dela 13 urtetik.



*"Ez dut uste irakasle gogorra naizenik eta suspenso eta sobresalienteak baino aprobatuak gehiago jartzen ditut. Gaztetan Beatlesak gustoko nituen eta idazleen artean, berriz, Atxagarekin geratzen naiz"*

- Irakasle gogorra al zara?
- Ez dut uste baina ikasleek esan behar...
- Ikasleak mutilak ala neskak?
- Mutilak.
- Ikasle pelotak ala maltzurak?
- Ez bata eta ez bestea.
- Gaitzizenik jarri al dizute?
- Neuk ez dakit baina uste dut edukiko dudala.
- Iraileko ala ekaineko azterketak?
- Irailekoak.
- Suspentsoak ala bikainak gehiago?
- Aprobatuak, 5ak.
- Ikasleren bati jarri diozun azken zigorra.
- Mahaia garbitzea.
- Nor izatea gustatuko litzaizuke?
- Sekula ez dut pentsatu.
- Gaztetako musika talde bat.

- Beatles.
- Diskoa ala compact disca?
- Diskoa.
- Norberaren usaina ala kolonia?
- Kolonia, Rochas.
- Begiak margotuta?
- Bai.
- Takoidun zapatak ala zapatilak?
- Egoeraren arabera.
- Ileapaindegira zenbatero?
- Bi hilabetetik behin edo...
- Idazle bat.
- Bernardo Atxaga.
- Richard Gere ala Robert Redford?
- Robert Redford.
- Filme bat.
- El club de los poetas muertos.
- Nork egiten ditu etxeko lanak zuenean?
- Erdibana.
- Dutzan abesten al duzu?
- Ez.
- Masajea hartu ala eman?
- Hartu.
- Irla desertu batetara norekin?
- Nere gizonarekin.
- Astebukaerarako plan on bat.
- Kontzertu bat goizean, pelikula on bat arratsaldean eta gauean juerga, dantzara.
- Seme-alabei gau-pasa egiten uzten diezu?
- Laga ez baina batzutan egiten dute.



## Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

### Espezialitate guztiak

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztanduak, etab...

Zure hartz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

#### BERGARAKO KLINIKA

Simón Arrieta, 3-2 B  
Tf. (943) 76 38 54

#### ARRASATEKO KLINIKA

Iturriotz, 7 behea  
Tf. (943) 79 73 88

#### ZUMARRAGAKO KLINIKA

Soraluze, 1-1 ezk.  
Tf. (943) 72 46 47




**Zumelaga**

**JATETXEA**

**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## *Galde debalde*

**IBON PEREZ**

**Santa Marinak (Santamaiña)** Oxirondoko Parrokiari izena ematen diola aski ezaguna da. Baina aurreko Galde Debalden Santa Marina nongoa zen galdetzen genuen eta erantzuna Aguas Santas (Orense, Galizia) herrikoa zela da. Erantzun ugari jaso ditugu, baina oraingoan **Ibon Perezi** tokatu zaio.

Berarentzat izango da, beraz, **ARGAZKI**k emandako sari bikaina. Zorionak **Iboni** eta besteek ez etsi, segi jokatzen.

**HERRAN ETXEA**



**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4 ☎ 76 37 53

- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- BERO-AKUMULADOREAK

**FAGOR**

**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



## KIROL EMAITZAK

### FUTBOLA

- Prefente maila: Bergara 0-Zestoa 0
- Lehen Erregionala: Anaitasuna 2-Bergara 0
- Lehen mailako jubenila: Bergara 3-Ilintxa 0
- 2. mailako jubenila: Usurbil 4-Bergara 3
- Lehen mailako kadetea: Elgoibar 1-Bergara 3
- 2. mailako kadetea: Bergara 1-Idiazabal 5
- Lehen mailako infantila: Arrasate 1-Bergara 1

### ESKUBALOIA

- Senior mutilak: Pasaitarra 18-Bergara 19 (Ligako txapelkunak eta igoera fasea jokatzeko klasifikatuta)
- Jubenil mutilak: Bergara 20-Arrasate 19
- Jubenil neskak: Bergara 12-Pulpo 14
- Kadete mutilak: Bergara 21-Bidebieta 22
- Kadete neskak: Urrietako 8-Bergara 16

### SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak: Lasalle 74-Bergara 53
- Kadete neskak: Bergara 42-Maryword 47
- Infantil mutilak: Aranzadi 59-Aloña Mendi 32

### PELOTA

- Deba Arroa binaka: Inf: Bergara 8-Soraluze 18
- Jub: Bergara 22-Soraluze 5
- Sen: Bergara 22-Soraluze 4
- Euskal liga: Bergara 18-Berango 8 (Jubenilak banaka)
- Bergara 22-Sanesteban 12 (Jubenilak binaka)



Pello Ruiz Cabestanyk 1982an irabazi zuen Gorlan. Argazkian, Cabestany bera 1992eko ekainean Euskal Bizikleta Bergarara heldu zeneko argazkian.

## Gorlako Txirrindulari Igoeraren XX. edizioa jokatu da igandean

*Afizionatu eta beterano onenak igande goizean Gorlako aldapetan*

**Igandean XX. Gorlako Txirrindulari Igoera jokatu da. Bergarako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, ohizkoa den bezala bi proba izango dira: goizeko 11.30etan beteranoena eta 12etan, berriz, afizionatuen lasterketari emango zaio hasiera. Afizionatuen txirrindulari denboraldia aste honetan bertan jarri da martxan eta igandean kategoriako onenak egotea espero da. Antolatzaileek adierazi digutenez, "azken urteotako irabazleak dagoeneko profesioletan ari dira eta denboraldiko lehen probetako bat izanik, ez dakigu nortzuk egongo diren ondoen forma aldetik".**

Gorlako probak ospe handia izan du hasieratik eta, besteak beste, Alberto Fernandez (1975), Julian Gorospe (1981), Pello Ruiz Cabestany (1982), Xabier Lazpiur (1990) edota Alfredo Irusta (1991, errekorra 21 minutu eta 9 segundurekin) garaile izan dira. Beteranoetan berriz, 1984 eta 1990 bitarteko edizioak irabazi zituen Koldo Lamikizek du errekorra 24 minutu eta 24 segundurekin (1984) eta azken bi edizioetan Jose Carlos Toribio izan da irabazlea. Ibilbideak 8 kilometro eta 500 metro ditu eta aurtengo edizioak 400.000 pta. inguruko aurrekontua izan du. Igandean, goizeko 11etan itxiko da ibilgailuentzat bidea.

## BOLINTXO

*Kirola egiteko behar den guztia*

lbargarai 10,  
☎ 76 38 32

Irizar, 2  
☎ 76 14 95  
**JAUJA KIROLAK**

## LAZKANO

## Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA

## 1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura	26	13	13	0	0	54	13
2. Errotagain	23	12	11	1	0	66	17
3. Tokieder	19	13	9	1	3	79	31
4. Bildurbarek LAM	18	13	9	0	4	66	52
5. Angiozar	17	13	7	3	3	65	36
6. Mongatxurra	15	13	7	1	5	53	35
7. Bar Canalejas	13	12	5	3	4	35	37
8. Arloteak	13	12	5	3	4	37	43
9. Usoa	12	12	5	2	5	37	38
10. Ogizun	11	13	4	3	6	40	46
11. Os Jardineiros	11	13	4	3	6	51	61
12. Ezinleike	11	13	4	3	6	38	53
13. Guadalest	11	13	4	3	6	30	48
14. Kriston Potruak	9	13	4	2	7	57	59
15. Nahikari Hool.	9	13	3	3	7	31	42
16. Soropotroak	8	13	4	0	9	36	46
17. Akort Ariznoa	8	13	3	2	8	43	67
18. Kriterium	7	13	2	3	8	34	52
19. Shaktale	7	13	3	1	9	28	75
20. OH Zerezos	6	13	3	1	9	38	67

## emaitzak

Kriterium	2 4	Ogizun
Soropotroak	0 3	Madura
OH Zerezos	2 8	Angiozar
Kriston Potruak	7 3	Mongatxurra
Os Jardineiros	3 3	Nahikari Hool.
Shaktale	1 9	Tokieder
Guadalest	4 3	Bildurbarek LAM
Ezinleike	2 5	Akort Ariznoa

## hurrengo partiduak

• LARUNBATA •  
kanpoan

09.00:	Shaktale-Nahikari Hool. (Ezinleike)
10.00:	Ezinleike-Angiozar (Soropotroak)
11.00:	Soropotroak-Akort (OH Zerezos)
12.00:	OH Zerezos-Ogizun (Errotagain)
13.00:	Mongatxurra-Errotagain (Ogizun)

• IGANDEA •  
kanpoan

09.00:	Kriston Potruak-Madura (Bildurb.)
10.00:	Arloteak-Bildurbarek LAM (Usoa)
11.00:	Usoa-Kriterium (Bar Canalejas)
12.00:	Os Jardineiros-Bar Canalejas (Guadalest)

## 2. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	33	19	16	1	2	99	46
2. Kalimotxo	32	19	16	0	3	105	48
3. Etxagi	31	19	15	2	2	125	54
4. Ufala	31	19	15	1	3	98	44
5. Hartu Zamak	31	19	15	1	3	98	55
6. Revienta	30	19	15	0	4	82	50
7. Ozaeta	29	19	13	3	3	113	45
8. Eri	26	19	12	2	5	101	59
9. Uve Bikoitza	24	19	11	2	6	95	71
10. Ari Ari	20	19	10	0	9	80	82
11. Amozkibar	19	18	9	1	8	70	53
12. Igandekoak	18	18	9	0	9	61	68
13. Kirolzaleak	17	18	8	1	9	66	80
14. Paok San Juan	16	18	7	3	8	54	53
15. Krai	16	18	8	0	10	80	79
16. Txipiron	16	19	6	4	9	52	64
17. Matalascañas	15	19	7	2	10	51	68
18. Labegarieta	13	19	5	3	12	39	96
19. Aldoka Maldoka	12	18	5	2	11	43	80
20. EH Biterrak	11	19	4	3	12	45	79
21. Pata Negra	11	19	5	1	13	53	103
22. Los Txupeta	10	19	4	2	13	47	72
23. Eusebio II	6	18	3	0	15	52	113
24. KK Usaina	0	17	0	0	17	30	136

## emaitzak

Labegarieta	2 0	Eri
Krai	2 6	Revienta
Arkupe	4 3	La Txupeta
Ozaeta	3 3	Paok San Juan
EH Biterrak	1 0	Txipiron
Ufala	1 0	Ari Ari
Amozkibar	1 6	Kalimotxo
Etxagi	7 1	Pata Negra
Uve Bikoitza	7 2	Aldoka Maldoka
Hartu Zamak	9 1	Matalascañas

## hurrengo partiduak

• LARUNBATA •  
barruan

09.00:	Labegarieta-Ozaeta (Igandekoak)
10.00:	Igandekoak-Pata Negra (Revienta)
11.00:	Etxagi-Revienta (Pata Negra)
18.00:	Eusebio II-Eri (Ari Ari)
19.00:	Kalimotxo-Ari Ari (Eri)

• IGANDEA •  
barruan

09.00:	EH Biterrak-Kirolzaleak (Txipiron)
10.00:	Amozkibar-Txipiron (Uve Bikoitza)
11.00:	Uve Bikoitza-Paok (Amozkibar)
16.00:	Hartu Zamak-KK Usaina (Krai)
17.00:	Krai-Aldoka-Maldoka (Arkupe)
18.00:	Arkupe-Matalascañas (Aldoka)

## Txinpartak

▼ Bigarren mailako Egoki taldea Txapelketatik kanpo uztea erabaki du. Antolatoketa Batzordeak, behin baino gehiagotan partidueta aurkeztu ez delako. Horrela, bada, Egokiren aurkako partidu guztiak 1 eta 0 irabazi dituzte bigarren mailako ekipok guztiek.

▼ Txapelketari diren ekipoei partiduetara ordurako ager daitezela eskatu die antolatzaileek. Neurketak puntuan hasten ez bada, dira atzeratu egiten da dena eta kaltetuena azkenengo partiduak jokatzera dituztenak dira.

▼ Arbitroentzako ohar bat: falta jaurtiketa guztiak zuzenak dira. Zati bakoitzean talde batek sei falta baino gehiago egiten baditu, bere aurkako falta jaurtiketa guztiak hesirik izango dira.

## Golegileak

LEHEN  
MAILA

1. F. Salinero (Ogizun) ...	31
2. I. Pagaldai (Angiozar) ...	23
3. I. Mujika (Tokieder) ...	23
4. B. Jimenez (Kris. P.) ...	22
5. Arriaran (Angiozar) ...	20

BIGARREN  
MAILA

1. J. Izuskiza (Etxagi) ...	50
2. Agirrezabal (Kalim) ...	50
3. Agirrebeña (Ozaeta) ...	40
4. J. Larrañaga (Eri) ...	40
5. A. Garitano (Arkupe) ...	37



## KIROL KARTELDEGIA

### FUTBOLA

- Bergara-Turing  
(Lehen Errejonala)  
Larunbata, 17.00, Ipintza.
- Bergara-Intxurre  
(2. mailako jubenilak)  
Igandea, 11.30, Ipintza.
- Bergara-Eibar  
(Lehen mailako kadeteak)  
Larunbata, 15.30, Ipintza.
- Bergara-Ordizia  
(Lehen mailako infantilak)  
Igandea, 10.00, Ipintza.

### ESKUBALOIA

- Bergara-Hernani  
(Senior mutilak)  
Ligako azken partidua  
Igandea, 12.15.
- Bergara-Pulpo  
(Kadete neskek)  
Larunbata, 16.30.  
Biak Labegaraietan.

### PELOTA

- **Afizionatuak** -
- Euskal Liga:  
Bergara-Zaramaga  
(Iker Muruamendiarazek  
irabazten badu ligako  
txapeldu geratuko da)  
Aurretik eskola arteko hiru  
partidu jokatu dira,  
benjamin, alebin eta infantil  
mailakoak.  
Igandea, 11.00.  
Udal Pelotalekua
- **Profesionalak** -
- Soroa III eta Andueza VI /  
Telletxea eta Oregi
- Unanue eta Aldazabal II /  
Arteaga eta Galarza III
- Gabilondo eta Galardi /  
Loiarde eta Andueza V  
Larunbata, 16.30.  
Udal Pelotalekua.

# XABIER LAZPIUR

## Jatorri bergararra duen txirrindularia

**Aita angiozartarra eta ama mañariarra duen Xabier Lazpiur atxabalarrak (24 urte) 1990eko Gorlarako Txirrindulari Igoera irabazi zuen. Ordutik 3 urte eman ditu Baneston eta gaur egun Euskadi taldean ari da.**


**- Gorlako garaipenaz zer gogoratzen duzu?**

- Afizionatueta betetzen nuen bigarren urtea zen. Kaiku Gurelesan ari nintzen korritzen eta eguraldi ona egiten zuela akordatzen naiz. Beti bezala, bizkor atera ginen eta Amesti inguruan, 4-5 korredorez osatutako talde bat geundela, azken tiroia jo nuen. Handik helmugara bakarrik geratu nintzen eta orduko errekorra gainditu nuen 21 minutu eta 10 segundurekin. Ondoren Alfredo Irustak marka hori segundu batean jeitsi zuen.

**- Zer behar da Gorlan irabazteko?**

- Normalean espezialista batek irabazten du; hotzean ondo ibiltzeko kapazitatea eduki eta eskaladore ona izan behar da. Ni ez naiz ez bata eta ez bestea baina forma onean nengoen orduan eta horrez gain, egun ona eduki nuen.

**- Iaz korritu barik egon zinen eta aurten, berriz, Euskadirekin**



Xabier Lazpiurrek 1990.eko Gorlarako Txirrindulari Igoera irabazi zuen. Gaur egun Euskadi Txirrindulari taldean profesionaletan ari da.

**fitxatu duzu...**

- Bai, urtarrean hasi nintzen entrenatzen eta erreserbitu egin nintzen. 3 astez geldirik egon naiz eta medikuekin proba batzuk egiteko zai nago; mehakian arazoak dauzkat eta eskumako hanka lokartu egiten zait.

**- Eta zure taldea nola ikusten duzu?**

- Valentziako itzulera telebistatik jarraitu dut eta ikusten da jendea gogo eta ilusio askorekin

dabilela. Aurten Estatuko kalendario guztia bete beharko dugu eta gure helburu nagusia Espainiako Itzulera paper ona egitea izango da.

**- Bukatzeko, zein da zure favorittoa Gorlako Igoeran?**

- Egia esan, asko ez ditut ezagutzen eta asmatzea ere ez da erreza. Baina nirekin entrenatzen ibiltzen den Jon Odriozola oñatiarrak irabaztea gustatuko litzaidake.

**"Gorlan irabazteko maldan gora eta hotzean ondo ibili behar da"**



## *Gerraurreko Alderdi Jeltzaleko antzezleriak (1934)*

**E**uzko Alderdi Jeltzaleak hainbat kultur talde (dantza taldea, antzerki-taldea, etab.) izan zituen gerraurrean. Goiko argazkian agertzen dena antzerki taldea da. "Iatzu" izeneko antzezleria eman zuten 1934an Bergaran Novedadesen, Donostian Kursaalean, eta azkenik Tolosan.

Gaia, Nafarroaren independentzia babesteko ahalegina eta San Frantzisko Xabier, txirotasuna besarkatu joan zela atzerrira Kristoren argia erakustera.

Lana Katalina Elizegirena zen eta autore honek egin zituen Loreti eta Garbiñe izeneko antzezlanak ere.

Bertan agertzen diren antzezleriak:

**Lurrean eserita:** Patxi Azkargorta, Aintzane Marko, Miren Linazisoro eta Felix Mujika.

**Lehenengo ilaran, eserita:** Pilar Murgoitio, Martin Gallastegi, Bittori Oñate, Ines Mandazain, Pakito Agirrezendoia, Luisa Galarreta eta Guenetxe.

**Bigarren ilaran:** Juste Amenabar, Nieves Zabaleta, Roman Jauregi, Karmelo Otaola, Maria Errasti, Natalia Juaristi eta Leandro Kortabarria.

**Hirugarren ilaran:** Tomas Barrena, Luis Bikuña, Jabier Ulazia eta Txomin Jauregi.

*Estepan Plazaola*

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

**ETXEBIZITZA**

**Garajea** (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

**Etxebizitza salgai** Iparra-girre kalean. ☎ 76 40 82.

**Etxea** salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

**Garajea** salgai Kruz Ga-llastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Berriztutako **pisua** salgai. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

Zubiaurren **pisua aloka-tzen da**. ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Pisua salgai** Zabalotegi Torreon (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauetz).

**Apartamentu** zentrikoa alokatzen da Culleran. Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila. ☎ 76 59 71.

**Pisu** amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauetz).

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsaldez).

**Pisua alokatzen** da Mas-terrekan ☎ 76 21 39.

**Garajea salgai** Ibarga-rain. ☎ 76 36 69.

**Pisua alokatzen** da. Bulegoak jartzeko egokia. ☎ 76 16 89.

**DENETARIK**

**Alfa 33** kotxea salgai. Ki-lometro gutxi. Egoera o-nean. ☎ 76 02 01.

**Talbot Samba** (SS-S) sal-gai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Baserri** bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Vespa 200** VI-F salgai. Motor berria. ☎ 76 53 55.

**Petrikilo**, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

**Onix** motorra (50 cc.) ia berria salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**Sega Megadrive** kotsola salgai. 2 jokurekin. 19.000 pta. ☎ 76 25 12 (Astebu-kaeretan deitu).

**Nissan Vanettea** prezio onean salgai. ☎ 644767.

**Subijanaren** sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta konpetiziozko patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

**Kanpin denda** haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauetz).

**Renault 21** TXE bat sal-gai. 1988koa. ☎ 763868.

**Artzai txakur** bat galdu da. ☎ 76 27 90.

**Mendi bizikleta** salgai. Cannondale XT.150.000 pta. ☎ 781858 (Jose Mari).

Mendiko bizikletako **zapa-tilak** salgai. Oparia: kas-koa. ☎ 76 37 29 (Martin).

**Butanozko** Mepamsa es-tufa salgai. ☎ 76 01 13.

**LANA**

**Gutxitu sikiko, elbarri** edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

**Ingeles klaseak** ematen di-tut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**Pertsona zaharrak** zain-duko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Propaganda** banatuko nu-ke. ☎ 76 40 94 (Jaime).

**Ingeles Filolojian** lizentzia-tuak, ingeles klaseak eman-go lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak** zaindu eta etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

**Ingeles klaseak** ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak** zainduko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta Fisika **kla-seak**. ☎ 762457 (Josune).

**Iñigo Martínez Basabe "Memin"**

Lan egin duzu geure hizkuntza mantentzearen bizirik guri ez zaigu ezer gelditzen zu eskertzea besterik



**Jardun** GAZTE TALDEA

**Hildakoak**

*Iñigo Martínez Basabe "Memin"* martxoak 5, 22 urte  
*Jesus Unamuno Kerejeta* martxoak 9, 69 urte

**Jaiotakoak**

*Ion Agiriano Murguzur* martxoak 1  
*Gorka Agirrezabal Igarza* martxoak 2  
*Ander Etxezarreta Uriarte* martxoak 7

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

**BEHEKO TABERNA**

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**ZUBIETA**

**elektragintza**

✓ *Motorren bobinaketa*  
✓ *Era guztietako instalakuntzak*  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE

UNITED COLORS  
OF BENNETTON.

BE  
zenba

B

KONTZES